

Erraldoi eta buruhandi berriak Laudion eta Urduñan



Aiara

Apirilaren 17an hasi eta 28an bukatuko dira Arespalditzako Jaiak 3.or



Kirola

Mikel Landa garaile Garrastatxun amaitu den Euskal Herriko Itzuliko etapan 12.or



Iritziak:

TXEMA URKIJIO 2. or.
AGAPITO VALLE 6. or.
ASIER
AMONDO 7.or
TXANI RODRIGUEZ 10. or
EGOITZ
BERNAOLA 11.or
AINHOA COMAS 16.or



aiaraldea

eus

Aiaraldeko hamabostekaria
2016 /// Apirilak 7 ///
OSTEGUNA
49. zenbakia ///
Doan ///
www.aiaraldea.eus

Eskualdeko gazteak atzerrira, lan-aukeraren bila



Argazkia: Tomy Pelluz

_elkarrizketa

IRUNE TELLEZ ROBLES

"Emakumezkoen kezka, balore eta aldarrikapenak aintzat hartzen dituen kirola da roller derbya"

12 or.



Argazkia: Elektra #78

TUBOS REUNIDOS: Enplegua Erregulatzeko Espedientearen aurka mobilizatzeko aukerak aztertzen ari dira langileak, zuzendaritzarekin bildu ostean 6. or.

ENPRESA OPARIAK

KAMISETAK, USB-AK, TERMOAK...
BEHAR DUZUNA ESKATU
ETA LORTUKO DUGU!!!

GUREKIN
ERE
EUSKARAZI!



Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA!!!
JANTZI ZERBITZUAK!!!
MARKA KUDEAKETA!!!

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

_iritzia



Txema
Urkijo
ABOKATUA

_Leihotik

Keinuen balioa

Banderak sinboloak dira. Horregatik askotan erabiltzen dira hainbat esanahitako keinuak egiteko. Harrotasunarekin mugitzen dira giro politiko batean identitate kolektiboaren gorazarre egiteko, tokiko kirolari edo talde bat animatzeko zein publikoki erretzeko, beste kolektibo batzuk iraintzeari begira.

Europar Batasunaren intsignia bere fatxadatik kentzea adostu zuen Nafarroako Parlamentuak duela egun batzuk, errefuxiatuen afera dramatikoaren hari-ira Turkiarekin lortutako akordioa arbuizatzeko. Ulertzen dut keinu hori egin izana, Europar Batasunaren erabakiaren aurrean piztutako lotsa eta haserre konpartitzen ditudalako, ni kolektibitate horren parte naizen heinean. Izan ere, duela ez horrenbeste sentitzen nituen haserre eta lotsarekiko antzekoak dira, Euskadin pertsona talde txiki batek euren hurkoak "euskal herriaren izenean" erailtzen zituenean sentitzen nituen haserre eta lotsaren antzekoak, ni ere herri horren parte naizen heinean.

Hala ere, garai hartan beste keinu mota batzuen alde egin nuen apustu, eta ez zitzaidan burutik pasatu ikurrina arbuizatzeko. Uste bainuen, sinbolo gisa, komunitate oso bat ordezkatzeko zuela, ez zela soilik errugabeen odolarekin zikintzen zutenaren sinbolo. Hori adierazi zuen jende askok Madrilén Tomas y Valienteren erailketaren ostean: "Euskaldunak bai, ETA ez".

Modu berean, uste dut izardun bandera urdinak gaur egungo buruzagiek erakutsitako duintasun eza gaintzen duen Europa bat ordezkatzeko duela.

Komeni da keinuen balioa neurtzea.



Yaiza
Irakaslea

Oso ondo egon da, gauza batzuk hobetu daitezkeen arren. Musikaren aldetik bestelako kontzertu batzuk egotea ondo egongo litzateke. Kanpalekua ere apur bat kaskar egon dela entzun dut. Baina giro oso polita egon da. Espero dut Laudion halako beste ekimen bat egiteko aukera egotea.



Maribel
Tabernaria

Gu oso pozik gaude Gazte Danbadarekin, oso zoriontsu. Jende oso adeitsua gerturatu da herrira. Kultura askotako jendea eta oso alaitua. Eurek zein guk gozatu egin dugu Danbadaz, dena egon da ondo. Egoerak eskatzen zuen moduan portatu dira herrira etorri direnak.



_GALDERA

Zer iritzi duzu Laudion egin den Gazte Danbada ekimenaren inguruan?

BIDEOA WEB-GUNEAN

Proposatuz zuek ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.



Endika
Tabernaria

Jendea bertaratu egin da zonalde honetako tabernetara (Zubiko Malekoia). Baina jendea gehien bat bertaratu egin da hemen taberna asko daudelako. Hemenedik ez da pasa Gazte Danbadaren baitako ez txaranga ez eta kalejirarik ere. Eta, alde horretatik, bai nabaritu dugu apur bat jende falta.



Patricia
Tabernaria

Oso ondo egon da. Beste gauza bat espero zen, baina harriritu gaude jendeak izan duen jarraonarekin. Jendearen tratua, pazientzia eta animoak ezin hobek izan dira. Esperientzia gozoa izan da. Leku ezberdinetako hainbeste jende biltzea ideiak komunean jaritzeko... oso gomendagarria.



Pedro
Jubilatua

Herrian jende ugari mugitu da Gazte Danbada aurrera ateratzeko. Jende abertzalea mugitu da gehienbat, eta gustuko dut hori. Jende gaztea izan da gehienbat mugitu dena. Izugarria izan da. Eta horrela jarraitu behar du, topera. Ez litzateke inoiz hil behar, gazteria bizitza delako.

_gutunak

Baal dago langile klaserik EAEn?

Jose Mari Gutierrez Angulo (Laudio)

Ibarretxeren hiztegian "langile" hitza ez zegoen. Lehendakari izan zen bitartean (10 urte) ez nion inoiz entzun hitz hori; "herritar" hitza bai, askotan. Agian harentzat klase borrokarik ez dago, edo ez da historiaren faktore erabakigarria. Guztiok talde bakar bat osatzen badugu klase borroka ezinezkoa da; baina Ibarretxek ez zituen klaseak ukatzen, enpresari-klaseari buruz eta bere garrantziaz askotan hitz egiten zuen eta.

Patxi Lópezek erabiltzen zuen "langile" hitza, eta langilearekiko begirunea oso ondo erakutsi zuen: milaka langilek (eta herritarrek) jasaten dituzte oraindik bere gobernuak ezarritako murrizketak. Gaitz erdi ezkertiarrek direla, nahiz eta alderdiaren euskal siglak O letra ez izan.

Urkulluentzat klaseak badaude, baina "benetako munduan" bakan batzuk besterik ez. Martxoaren 22an Urkulluk esan zuen batzuk errealitatetik kanpo daudela; eta argi utzi zuen nortzuk dauden barruan: patronala eta gobernuak. (...)

Langileentzat arazo larrienak ez dira patronalen eta gobernu neoliberalen jarduerak eta arrazoi bideak; larriena da langile askok beren burua langile klastetik kanpo ikustea.

(Testu osoa irakurgai www.aiaraldea.eus-en)

Herritik, baina... herriarentzat?

Iñaki Ortiz de Pinedo eta Uztai Largarza

Gora Laudioko Jaiak! Behin eta berriz urtero milaka ahotsak eskainitako kontzertuaren ereserkia. Laudiar guztion bihotzean gordetzen omen dugu festaren arima, ala ez?

Jaien data-aldaketaren gaiarekin, Laudioko ospakizun nagusiaren hutsak azaleratu dira: egun banaketaren zentzugabetasuna, inguruko jaien eragina, antolaketa arazoak... eta abar. Baina larriagoa dena zera da: herritarren jai-arima falta agerian geratu da. Parte-hartzea eta gogoak lur azpian gorde ditugula esatea ez litzateke gehiegi izango. 'Gorde' diogu, betirako galdu ez dugunaren konfiantza dugulako. Jaien data-aldaketaren arazoak ugariak dira, zentzudunak eta logistikoki zuzenak, oro har. Baina zertarako datak aldatu, jaietako inplikazio eta gertutasuna armarian gordetzen baditugu? Arropa politagoak jarritz gaixoa sendatzen saiatzea da hori. Kanpoko jendea erakarriko dugu, jaietarako bate-ratuko ditugu eta ez gara Bilbora joango gure herriko jaietan. Baina portikoaren babesean jarraituko dugu, betiere kalejiretan dantzatu eta ekintzetan parte hartu gabe... Eta, noski, antolakuntza laguntzea ezta pentsatu ere! Ikusiko dugu ibaiak zer dakarren. Bitartean, oraindik lema hutsa ez denaren us-tez, GORA LAUDIOKO JAIK!

Argitaratzailea:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Tirada:

10.000 ale.

Maistasuna:

Hamabostekaria

Lege gordailua:

BI-1230-2013

Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

agurrak@aiaraldea.eus

Publizitatea:

publizitatea@komunika.eus

Tlfnoa: 688 62 53 94

Web-gunea:

www.aiaraldea.eus

Helbidea:

Nerbioi Kalea 1, 3. esk.

Laudio. Araba. 01400

Telefonoak:

Tel.: 94 656 85 54/688 62 59 00

ERREDAKZIO OHARRA:

Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzaz, z/g · LAUDIO (Araba)
Tel.: 946 721 200 // info@jez.es

ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

BASA LARRINA
euskal TOPAGUNEA

_herriz herri

Aiara

Apirilaren 17tik 28ra ospatuko dira San Prudentzio jaiak Arespalditzan



Laura Guerrerok irabazi du aurtengo jaietako portada lehiaketa.

ERREDAKZIOA | Ainhoa Basarrate Astobiza

San Prudentzio jaiak ospatzeko programa oparoa prestatu dute Aiara. Apirilaren 17tik hasita hilak 28ra bitartean, jai giroaz beteriko bost egun izango dira Arespalditzako bazterretan.

Jaien hasiera markatuko duen txupinazoa apirilaren 22an 19:00etan jaurtiko duten arren,

hilak 17an 'Prontxi Ibilaldia'-z gozatzeko aukera egongo da. Suzirien eztrandaren aurretik, Lanteko arte eskolak idatzitako pregoia irakurriko dute eta aurtengo portada lehiaketa irabazi duen Laura Guerrerori saria emango diote.

Apirilaren 23an, larunbatean, Arabako erakus-txakurren lehia-

keta egingo dute eta txikiengatik jolas parkea egongo da goizez eta arratsaldean. Barrena eta Lisker taldeek giroa egongo dute gaua 22:00etatik aurrera.

Kirolak hartuko du hilak 24ko jai egitaraua. Igandean 10:45ean ekingo diote duatloi txikiari eta ordubete geroago nagusien probari. Egun horretan ere herri bazkaria egingo dute. Bakoitzak bere janaria eraman eta udalak edaria eskainiko du.

Hilak 28, San Prudentzio

Tokiko produktuen azokarekin ekingo diote jaietako egun handiari apirilaren 28an. San Prudentzioren omenezko mezaren ostean, umeen danborrada egingo dute.

Arratsaldean musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera egongo da Patxi eta Konpainia dantza taldearekin. Gauean, 21:30etatik aurrera egingo duten odoloste janarekin amaituko dira 2016. urteko Aiara jaiak.

Egun hauetan Arespalditzara joateko autobus zerbitzu eta ordutegi bereziak egongo dira.

Irisgarritasuna hobetzeko lanak egin dituzte HAZan

ERREDAKZIOA |

Ainhoa Basarrate Astobiza

Arespalditzako udal bulegoetan dagoen Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) irisgarritasuna hobetzeko lanak egin dituzte.

Horretarako igogailurako sarbidea hobetu eta ate automatikoa instalatu dute.

Hemendik aurrera Herritarren Arreta Zerbitzua eskaintzeko bi lanpostu egongo dira.



Aiarako udaletxea Arespalditzan. Argazkia: aiaraaldea.eus

Orozko

Auzo batzarrak hurrengo hamar egunotan



Muruetako auzoa Argazkia: verpueblos

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Orozko Udalak auzo batzarrak deitu ditu eta hurrengo hamar egunetan gauzatuko dituzte herriko hainbat txokotan; 6 auzotan hain zuzen ere.

Nola ez, bilera guztiak irekiak izango dira eta egitura bera izango dute. Hasteko, aurreko saioko aktak onartuko dituzte. Gero, auzoan burututako ekintzak eta egiteke dauden ekimenak landu dituzte. Jarraian, bideak konpontzeko plana jorratuko dute.

Horren ostean, txakurren txip kanpaina aurkeztuko du udalak. Hurrengo gaia eraikinen ikuskaritza teknikoari eta berriskuste kastastralari buruzkoa izango da eta bukatzeko, erregu eta galderen txanda irekiko dute.

6 bilera

6 auzo batzar antolatu dituzte eta apirilaren 8an -bihar bertan-

abiatuko dira, Muruetako auzoan, 19:00etan izango da hitzordua soziazalean. Hurrengo egunean, apirilaren 9an, larunbata, Zaloan izango da auzo batzarra. 10:00etan hasiko da bertako baselizan.

Egun berean, bi ordu berandua go-12:00etan, alegia, udal ordezkariak Ibarako Txokoan egongo dira, bertako auzokideekin aritzeko.

Hala ere, asteburu horretako azken bilera 10:00etan egingo dute Arbaizako Txokoan, hurrengo egunean, igandean.

Auzo batzarren bigarren txandari apirilaren 15ean ekingo diote, hau da, ostiralean. 19:00etan elkartuko dira Goikirian auzokideak eta udal ordezkariak.

Amaitzeko, azken hitzordua San Migeleko baselizan egingo dute hurrengo egunean, larunbatean, goizeko 11:00etan.

Artziniega



HERRI ORATZEA: Artziniega Museoan larunbatean erakutsi zuten nola egiten zuten ogia antzina. Umeek eta helduek ogia dastatzeko eta egite-prozesuan parte hartzeko parada izan zuten. Argazkia: Garazi Ureta

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

1945. urtetik Laudion zurekin

Karmen Kalea 13, behe
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIK

_herriz herri

Urduña

Andra Mari Ikastetxearen 50. urteurrena hastear dago



Murias taldea aurkeztu dute urteurrenean. Argazkia: Andra Mari Ikastetxea.

ERREDAKZIOA | Andima Landaluze Okerantza

Urduñako Antzinako Andra Mari Ikastetxeak 50 urte bete dituela ospatzeko, ekimenez jositako egitaraua plazaratu dute; musika, hitzaldiak, erakusketak...

Ekimen ugari

Oraindik egitaraua guztiz itxi ez badute ere, hainbat ekintza aurreratu dituzte, guztira 4 kirol ekimen, 6 hitzaldi eta beste dozena bat ekitaldi kultural izango dira: argazki eta pintura erakusketak, ipuin lehiaketa, kontzertuak, euskal zinemaren as-

teburua eta abar. Apirilaren 17an Diego Martin Etxebarria orkresta zuzendaria arituko da Familia Sakratuan. Apirilaren 29an hitzaldia emango du Julen Oyarzabal Santamarina neurologian adituak Antzinako Andra Mari Ikastetxean bertan. Maiatzaren 20an izango da 50. urteurrenaren ospakizun nagusia Antzinako Andra Mari Ikastetxean.

Egun horretan bertan solasaldia izango dute lan munduari buruz Asier Pérezek, Javier Gutiérrezek eta Sabin Azuak.

Maria Barbero izango da Otxomaioetako txupinero



Maria Barbero moto gidaria /aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Herriko kultur eragileek Maria Barbero hautatu dute Otxomaio Jaiei txupinazoa jaurti dezan.

Maria Barbero motoziklistak BMW Goya Motorrad taldeko kidea da orain. Erabaki zaila izan da urduñarrarentzat, horretara-

ko jaioterria utzi eta Zaragozara joan baita bizitzera. Dena den, horri esker, Espainiako II. Abiadura Kopa femeninoan parte hartzeko aukera izango du.

Bestalde, Olanen elkartea izango da Otxomaioetako pregoilaria.

Maria Luisa Goikoetxearen aldeko mozioa onartu dute aho batez



ERREDAKZIOA |

Martxoaren 17an ez-ohiko udalbatzan treneko irisgarritasunabermatzeko lanei lehenbailehen ekiteko eta Maria Luisa Goikoetxea urduñarrari babesa emateko mozioa onartu zen. EH Bilduk aurkeztu zuen mozioa eta bi alderdien (EH Bildu eta EAJ) aldeko bozekin egin zuen aurrera.

“Astindu Bihotza” elkartasun ekimena egingo dute apirilaren 9an



ERREDAKZIOA |

Urduñako frontoia dantzatzeko eta bihotzak astintzeko gune bihurtuko dute apirilaren 9an. Izan ere, kardiopatia duten umeen familien elkartearentzat laguntza eskuratzeko eguna izango da Jaialdian hainbat zumba emanaldi egingo dira. Helduek 8 euroko sarrera ordaindu beharko dute eta umeek, berriz, 5. Bukatzeko, Gwa Ya taldeak joko du Gaztetxean.



Larunbateko auzolana zuhaitzak landatzeko. Argazkia: Urduñako Udala

Auzolanean atondu dituzte gune berdeak

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñako udalak hainbat dinamiken bitartez egokituko ditu hiriko gune berdeak. Besteak beste, zuhaitzen landaketa, lorategien berritzea eta ibaiaren garbiketari ekin diote.

Auzolana ardatz

Ekainaz geroztik herritar talde batek hartu du lorategiak atontzeko gidaritza. Whatsapp talde baten bidez funtzionatzen dute, tarteka bilerak eginez. Hala, Urduña

atontzeko proposamenak egiten dituzte, eta udalari aurkeztu. Udalak, hortaz, eskaerak aztertu, baloratu eta kudeatu egiten ditu.

Ornamentazioaz arduratzen den taldeak udaleko brigada berrazaintzeaz soilik ardura dadila proposatu du. Ondorioz, udal jarduerak garatzeko baliabideak lortzeaz arduratuko da hemendik aurrera: erremintak, materiala...

Oraingoz 7 ekintza egin ditu lorategi taldeak.



[ARGAZKI BILDUMA] LEHENENGO SEKTOREKO EMAKUMEEN TOPAKETAK: Urduñako eta Santurtziko lehenengo sektoreko emakumeak elkartu ziren larunbatean esperientziak trukatzeko eta elkar ezagutzeko. Apirilaren 16an Santurtzin errepikatuko dute topaketa.

WIDEX UNIQUE™
BIZI BIZI

EGUNEROKO MUGAKO
EGOERETAN
ENTZUMEN ONENA,,

WIDEX
AUDÍFONOS

ETORRI WIDEX UNIQUE
AUDIFONO BERRIA FROGATZERA

LUYANDO ENTZUMEN ZENTROA

Elexondo, 1
Amurrio
T. 945 892 422

Pío XII, 3
Laudio
T. 944 042 286

Barria Kalea, 5
Urduña
T. 945 384 499

_herriz herri

Laudio

Merkataritza-plan estrategikoa egingo dute hurrengo 6 hilabeteetan



Merkataritzaren etorkizuna landuko dute. Aiaraldea.eus.

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Laudioko Udalak 25.000 euro inbertituko ditu merkataritza-plan estrategikoa. Oraindik esleipena egin behar badute ere, erakundeak adierazi du kontra-

tatuko duten enpresak lana garatzeko 6 hilabete epea izango duela.

Plan estrategikoa zenbait ardatz izango du, PERCO mahaiare-

kin adostu baitute. Hasteko, herrigunea eta merkataritza kudeatzeko modu berriak aztertu nahi dituzte. Zentzu horretan, esparru publiko eta pribatuaren elkarlana lantzeko asmoa daukate, edo aukera aztertu, gutxienez.

Erroldak eta identifikazioak

Herririk daukan potentzialitatea zehazteko herriko kontsumitzaileen, kanpoko langileen eta bisitarien nahiak zein beharrik identifikatuko dituzte. Hori ez ezik, hutsik dauden lokalen errolda osatuko dute. Azpiegitura publikoak eta ikastetxeak ere aintzat hartuko dituzte. Hori guztia HAPO berria idazteko erabili nahi dute.

Horrela, zer negozio mota eta non kokatu daitekeen definitzeko urratsak emango dituzte. Merkataritza-plan estrategikoa ordaintzeko Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza dauka udalak.

Amurrio

12.609.000 euroko aurrekontu zirriborroa aurkeztu du udalak

ERREDAKZIOA | Ainhoa Basarrate Astobiza


Amurrioko Udala Gobernu Taldeak 12.608.991,09 euroko aurrekontu zirriborroa aurkeztu du. Gainerako taldeek apirilaren 11ra arteko tarte izango dute dokumentua aztertu eta proposamenak egiteko. Ondoren, behin betiko onarpena eztabaidatuko dute Ekonomia Politiken Batzordean.

Zirriborroari dagokionez, iaiz baino 700.000 euro gutxiago izango du herririk aurre, ur eta estolderiaren zerbitzuari dagokion tasa orain Kantauriko Urkidetzak biltzen duelako.

Inbertsioak

Egindako proposamenean inbertsioetarako 1.353.840,33 euro erabiltzea aurreikusitako Gobernu Taldeak. Horien artean daude Obra eta Zerbitzuen Foru Planari aurkeztutako obrez gain, Reforretik Saratxoko industria gunera doan bidegorria eraikitzeako obra, Amurrioko umeentzako parkeen konponketa, Bañueta kiroldegian biomasa sistemaren instalazioa eta Erretiratuen Kluberako altzari berriak erostea.

Garapen iraunkorra lantzeko "denboraren tunela" abian



Gai birziklatuak erabili dituzte erakusketan. Argazkia: Andoni Diaz

ERREDAKZIOA | Ainhoa Basarrate Astobiza

Amurriok "Denboraren tunela" erakusketa jarriko du Juan Urrutia plazan apirilaren 7tik 10era, abiatu duen EKOiztu programaren bigarren fasearen barruan.

Birziklatutako materialarekin egindako igarobidean bi make-ta egongo dira: bata gaur egungo

Amurriorena, eta bestea etorkizuneko herriarena.

Horrela, modu bisualago batean landu nahi dituzte programaren oinarriak: mugikortasuna, energia berriztagarriak, ura, hondakinen kudeaketa eta industriaguneak, besteak beste.

Quebecoko ikasleak Ermuko Andra Mariko indusketetan



ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Université Laval eta Université de Montréal-eko ikasle talde batek Ermu Andra Mariko indusketetan parte hartuko du udan.

Ehunka pertsona igaro dira Ermualdetik indusketen berri izateko 2015ean.

Laudioko finkatutako Sergio Escribano EHuko irakasleak lortu du akordioa Kanadan, berak zuzentzen baititu Ermuko Andra Mariko indusketak. Université Lavale-ra joan da historialaria, martxoan, hitzaldi bat eta klaseak ematera. "Euskalarrantza Atlantikoaren iparraldean" gaialanduzuen, etabizita Erasmus + programari esker egin zuen. Horrez gain, Mainera (Ameriketako Estatu Batuak) jo zuen Sergio Escribanok, zenbait ikerketa egiteko. Gainera, irakaslea "Basque Yourself Summer School" jardunaldietan arituko da, ekainaren 28an, hain zuzen.

Gazteen lokalen inguruko azterketa abiatu du udalak

ERREDAKZIOA | Ainhoa Basarrate Astobiza

Herriko gazteek erabiltzen dituzten lokalak ezagutzeko prozesua abian jarri berri du Laudioko Udalak. Horrelako espazioak erabiltzen dituztenen segurtasuna bermatu eta auzokoekin zein jabeekin arazoak ekiditeko planteamendua garatzeari ekin nahi diote.

Galdetegi anonimoa prestatu dute horretarako. Laudion horrelako lonja bat partekatzen duen gazte orok parte hartu dezake prozesuan, www.laudio.eus webgunean dagoen inkestari eran-

tzunda. 17 itaunek osatzen dute galdetegia eta horietako batzuk derrigorrez bete behar ditu interesdunak. Hala ere, galderagehiak hautazkoak dira. Lantzen dituzten gaiak erabiltzaileei (neskek eta mutilek alokatu duten, zenbat diren), lokalei (denbora asko behar izan duten topatzeko) eta egoera legalari buruzkoak (kontratua edo aseguruia duten) edo auzokideen ingurukoak dira. Dena den, zaborra edo udalaren betebeharrak ere jorratzen ditu galdetegiak.



asesores

elkarlan

www.elkarlan.eu

Aholkularitza: Lanekoa, Fiskala, Kontabilitatekoa eta Juridikoa

Foru Kalea, 2 · AMURRIO · Tel. 945 39 33 51 / Lamuza, 12 · LAUDIO · Tel. 94 672 74 28

Torre de Ugao, 12 · UGAO · Tel. 946 03 91 65



sozioekonomia



Agapito Valle
LAB

—Argia

Gure ekoizpen sistemari kolpea

Azkenaldian askotan ikusi ditugu enpresa handiak zenbait argudio erabiltzen lan-baldintzak okertu edo lantegiak ixteko, esaten dutenaren arabera, ez direlako errentagarriak. GEZURRA. Arazoa da ez dutela onartzen langileentzat baldintza duin batzuk mantentzen dituen ekoizpen sistema bat, ez dutela onartzen ezerk oztopatzea euren mozkinak kosta ala kosta maximizatzeko helburua.

Energiaren kostuaren, Txinaren konpetentziaren edota petrolioaren prezio baxuaren argudioak arrazoi generikoak dira, Euskal Herriko edozein enpresak erabili ditzakeenak. Aiaraldean Tubos Reunidosek Enplegua Erregulatzeko Espedientea aurkezteko erabiltako argudioa berdin-berdin erabili dezake Tubacex-ek, bi enpresek baitituzte proiektuak martxan eskualdetik kanpo, Tubos Reunidosek Gasteizen eta Tubacex-ek Kantabrian. Hori da mezua: ez baldin badute nahi dutena lortzen edozein aitzakia erabili dezakete lantegiaren itxiera, beste leku batera alde egitea edo beste baldintza batzuk dituzten enpresen sorrera justifikatzeko.

Hego Euskal Herrian jokoan dagoena ez da enpresa zehatz batzuen etorkizuna. Hemen jokoan dagoena gure ekoizpen sistema da, eta beharrezkoa da botere publikoei eta instituzioei sistema horren biziraupena bermatzea eskatzea. Enpresen zuzendaritzari ardurak exijitzean oinarrituko den sistema bat, gure herriaren etorkizunarekin konprometitutakoa eta lan harremanak negoziazioan oinarrituko dituena, ez legeri baten inposizioan.

Akordioa lortu nahi du Tubos Reunidoseko zuzendaritzak, “bake soziala” bermatzeko

Tubos Reunidosen Amurrioko lantegiko 776 langileri eragingo die zuzendaritzak aurkeztutako Enplegua Erregulatzeko Espedienteak. Sindikatuek adierazi dute ez dituztela zuzendaritzaren argudioak sinesten, eta mobilizazioetara jotzea aztertzen ari dira.

ERREDAKZIOA I

Tubos Reunidos enpresako zuzendaritzak enplegu erregulazio espedientearen dokumentazioa eman die langileen ordezkariari. Dokumentazioa aztertuta, sindikatuek jakinarazi dute espedienteak 776 langileri eragingo diela.

Espedientetik kanpo geratu dira zuzendaritza, arloko arduradunak, komertzialak, zerbitzu medikua eta zaintzaileak.

99 eguneko espedientea

Sindikatuetaordekari adierazi dutenez, 12 hilabeteko iraupena izango du espedienteak eta beharginek 99 egun ez dute lanik egingo; lanaldiaren heren bat da hori, gutxi gorabehera. Hortaz, 208 eguneko izango da lan jardura⁽¹⁾. Enpresak apirilaren 17an du espedientea indarrean jartzeko asmoa.

Mobilizazioak

Bi aldiz bildu dira dagoeneko langileen ordezkariak zuzendaritzarekin. Enpresak negoziatzeko asmoa duela iragarri du, “bake soziala” bermatzeko. Baina sindikatuek adierazi dute ez dituztela zuzendaritzaren argudioak sinesten, eta mobilizazioak egin edo ez eztabaidatzeari ekingo diote.

Langile batzordean ordezkari gehien dituen ELA sindikatuak, Tu-



Tubos Reunidoseko langileek zuzendaritzaren aurrean protesta egin zuten 2012an. Argazkia: aiaraldea.eus

215 milioi euro irabazi ditu enpresak azken 9 urteetan eta 238 milioi euro ordaindu dizkie akziodunei

bos Reunidos enpresako zuzendaritzari exijitu dio etorkizuna izango duen industria-plan bat aurkezteko; lanpostuak mantendu eta langileen baldintzen kalterako izango ez dena. LAB sindikatuak, bere aldetik, adierazi du enpresak bitarteko nahiko dituela eskaera faltari aurre egiteko, azken urteetan etekin⁽²⁾ ugari lortu baititu.

Zentzu horretan, ELAk gogoratu du azken bederatzi urteetan (2005-

2015) Tubos Reunidosek 215 milioi euro irabazi dituela eta 238 milioi euro ordaindu dizkiela akziodunei. LABek gaineratu du ez duela ulertzen enpresak aparteko lan orduak egiteko eskaera egitea langileei, lanik ez dagoela dioten bitartean.

Hiztegi lagungarria

Jarduera⁽¹⁾, aktibitate / Etekin⁽²⁾, mozkin, irabazi

5 urteko kartzela zigor-eskaera JEZ enpresako langile bati Troikaren kontrako mobilizazioan parte hartzeagatik


ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

2014ko martxoaren 3an Nazioarteko Diru Funtsaren aurka manifestazioan parte hartzeagatik atxilotu zuten Iñaki Montes JEZ enpresako langile batzordeko kidea, Bilbon. Epaitegiak erabaki du 5 urteko kartzela zigor eskaera egitea instrukzio fasea bukatu ostean. Zehazki, fiskalak 2 urte eskatuko dizkio desordenak sortzeagatik eta beste 3 agintaritzaren aurkako atentatua leporatuta. Gainera, 12 hilabeteko isuna ezarri nahi diote eta 214.500 euroko kalte ordainak.

Beharginak errugabea dela al-

darrikatu du. Langileak azaldu du berak manifestazioan parte hartu zuela Troikaren politiken aurka, gehiengo sindikalak deitu baitzuen. Hala ere, azpimarratu du akusazio guztiak faltsuak direla. Beharginak adierazi du zenbait bideo grabatu zituztela kazetariak eta horietan bistakoa dela berak ez zuela legez kanpoko ezer egin.

Bestalde, nabarmendu du manifestazioaren istiluen hasieran atxilotu zutela eta ez duela ulertzen zergatik egotzi nahi dizkieten gero apurto ziren gauzen ardura, hau da, 214.500 euroko kalte ordainak.



Atxilotetaren unea. Argazkia: Info7

_jendartea

HILEROKOAREN ZIKLOA

“Hilerokoaren inguruan dagoen desinformazioa borrokatzea da tailerraren helburua”

ESTI URRESOLA eta ANE URIARTEK (Laudi, 1984) hilerokoari buruzko tailer bat eskainiko dute igandean (apirilak 10) Laudioko Kultur Etxean. Emakumeek euren artean esperientziak partekatzeke espazio bat sortzea dute xede.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Nondik dator horrelako tailer bat egitearen ideia?

URRESOLA: Nik duela zenbait urte ekin nion hilerokoaren zikloa ikertzeari. Bartzelonara zinema master bat egitera joan nintzenezan “Adri” filma grabatu nuen, eta hilerokoaren gaia jorratu⁽¹⁾ nuen bertan.

Orduz geroztik, filma proiektatzera joan naizenez hainbat gauza sumatu⁽²⁾ izan ditut. Alde bateatik, nabaritu izan dut emakumeek euren esperientziak konpartitzeko sekulako gogoak izan dituztela, oso identifikatuak sentitu direlako pelikulan kontatzen denarekin. Baina bestetik sumatu dut ere, grina hori izanda ere, asko kostatzen zai-gula leku publiko batean horrelako gai bati buruz hitz egitea. Gauzak hala, Ane eta bion kezka eta bi-deak batuz sortu zen tailerra.

Behin bien bideak batuta, nola garatu zenuten tailerra?

URIARTE: Ikusi genuen ez zirela soilik gorputzaren mugimenduak kontuan eduki behar, mugimendu emozionalak ere tratatu behar zirela. Gaur egun badaude yoga edo pilates bezalako diziplinak, norberaren burua hobeto ezagutzeko balio dutenak, eta iruditzen zitzaigun gai hau ere modu integrarean landu beharra zegoela, alor⁽³⁾ teorikoa esperientziara eramanez.

URRESOLA: Tailerra egiteko detektatzen genuen beste motiboetako bat bazen guk eskolan ez dugula inolako hezkuntza menstrualik jasotako liburuetan ikusitakoa kenduta. Liburu horietan atal fisiologikoa azaltzen da, diseinatuak

“Gustatuko litzaiguke proiektu hau eskoletan ere zabaltzea”

“Emakumeoi askotan esan digute ‘desorekatuak’ garela. Irudi hori apurtzeak segurtasuna ematen digu”

eta gorputzarekiko banatua, erre-konoizteko ezinezkoa. Horrek eraman gaitu gure hilerokoarekin dugun harremana modu despertsonalizatu batean bizitzera.

Desinformazioa borrokatzea ere bada helburuetako bat. Hilerokoari buruz hitz egiten dugu soilik, baina hilerokoa ziklo osoaren lauzpabost egun baino ez ditu betetzen. Zer gertatzen da gainontzeko egunetan zehar gure gorputzean? Zer hormona ari dira funtzionatzen? Badaude bi momentu garrantzitsu eta zehatz: menstruaioa eta obulazioa. Horien artean lau fase ezartzen dira.

Emakumeoi askotan esan izan digute “desorekatuak” garela, baina ilargi-diagramaren eta horrelako espazioen bitartez nik uste dut argi ikusten dugula ez garela desorekatuak, ziklikoak baizik. Irudi hori apurtzeak segurtasuna ematen digula uste dut.

Zeintzuk dira fase horiek?

URIARTE: Fase bakoitzak joera bat dauka. Badaude fase espresiboa, fase dinamikoa, sormenezko fasea eta barrura begirakoa.

URRESOLA: Hilerokoa duzenezan ziklo berri bat hasten da. Barrura begirako fasea dator lehenbizi, bost egun inguru irauten dituen. Estrogenoak isurtzen hasten gara gero, eta horrek aktibitate intensu batera garamatza: fase dinamikoa.

Obulaziora gerturatzaren heinean fase espresiboa etorriko litzateke, oso alai eta sozia-

la. Eta gero etorriko litzateke azkena: sormenezkoa.

Emakume guztietan ematen dira fase horiek?

URIARTE: Fase bakoitzak arketipo bat dauka, baina emakume bakoitzak bere modura bizitzen du. Emakume bakoitzak bere tresnak ditu fase bakoitza bizitzeko. Izaeraren eta esentziaren arabera da hori.

Baduzue tailerra beste okasio- ren batean errepikatzeke edo bestelako ekimenik aurrera ateratzeko asmorik?

URRESOLA: Gustatuko litzaiguke proiektu hau eskoletan zabaltzea.

Uriarte: Badugu tailerra beste herri batean egiteko asmoa. Baina apurka apurka joango gara.

IZEN-EMATEA

Izena emateko: 944034850 (Laudioko Berdintasun Zerbitzua)

Hiztegi lagungarria

Jorratu⁽¹⁾, tratatu / Sumatu⁽²⁾, nabaritu / Alor⁽³⁾, esparru

ADRI



Bartzelonan eginiko zinema master baten bidez zuzendu zuen Esti Urresolak bere lehen filma laburra: “Adri”. Hamaika urteko neska baten lehen hilerokoaren nondik norakoak kontatzen ditu pelikula. Hainbat sari irabazi ditu lanak.

BIDEOA: Ikusi filma YouTuben



Asier Amondo AEK

_Hankamotz

Antzokiaz

Sarri entzun dugu Laudiok antzoki bat behar duela eta azken egunotan ere entzun dugu horren gainean inkesta bat egin duela APILL-ek kultur eragileekin batera, non zehazten den antzokiaren kokapena erdigunea izan behar duela, erabilera antzeko antzokia izan behar duela, 500 eserleku izan behar dituela eta agian beste kontu batzuk ere, nik ezagutzen ez ditudanak.

Gauza batzuk, hau da, balizko antzoki hori erdigunean egon behar duela eta erabilera antzekoa izan behar duela zalan-tzan jarri barik, bai sortzen dit zalan-tza 500 eserleku, 300 edo 800 izan behar dituen. Ez dut uste eserleku kopurua garrantzitsua denik. Zergatik diodan hori? Ba nire uste apalean honetorri behar duelako hausnarketa sakonago batetik. Esan nahi dudana zera da: antzokia zertarako nahi dugun, zer nolako ikuskizunak bultzatuko ditugun, euskaraz egiten den sorkuntzak zer toki izango duen, formatu handiko edo txikiko antzezpenak bultzatuko ditugun, ekoizpena bultzatuko den, Euskal Herrian dagoen antzoki sarean kokatuko den...

Kultur eragileek eta APILLek honen gaineko hausnarketa egin dute? Egin badute egokia litzateke konpartitzea inkesta konpartitu duten moduan eta ez badute egin antzokiaren proiektuarekin batera lantzekoa dela irizten diot, ez dudalako nahi eta uste dut inork ez duela nahi behin eginda geldi egotea atzean kultur proiekturik ez dagoelako. Nire ustez eserleku kopurua ez da gakoa; kultura proiektua, ordea, bai. Eta hori lantzea premiazkoa da, batak bestea baldintzatuko baitu.



Erreportajea



Atzerrira, baina ez oporretan

Urtero mila aiaraldea baino gehiago joaten dira euren herrietatik beste lekuren batera bizitzera. Negatiboa da migrazio-saldoa: Aiaraldera bizitzera datozenak baino gehiago dira eskualdetik kanpora doazenak.

Argazkia: Astrid Westvang

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Urtero mila aiaraldea baino gehiago joaten dira euren herrietatik beste leku batzuetara bizitzera. Hori ondorioztatu daiteke EUSTATEk eskainitako datuak behatuta⁽¹⁾. 2014an 1.463 aiaralderrek utzi zuten euren ordura arteko bizitokia beste leku batera bizitzera joateko.

Horietatik 438 EAetik kanpora joan ziren. Gainontzekoak (1.025) autonomi erkidegoko beste herri batera mugitu ziren. Hala ere, azken zifra hori aztertzerako orduan gauza bat izan behar da kontutan: balitekeela 1.025 pertsona horietako batzuk Aiaraldekoko herri batek bestera baino ez mugitu izana.

Hortaz gain, argi izan behar da datu hauek guztiak errolden arabera osatzen direla, eta egon daitezkeela errolden jakinarazi gabe beste leku batera bizitzera doazen pertsonak. Datuek, beraz, ez dute fenomeno bere osotasunean islatzen. Migrazio-saldoa negatiboa da eskualdeak.

Hau da, jende gehiago da eskualdetik doana eskualdera bizitzera bertaratzen dena baino. 2014an, adibidez, -57koa izan zen migrazio-saldoa, kanpora joandakoak bertaratutakoak baino % 4,05 gehiago izan ziren.

1980 eta 2000 urteen artean jaiotakoak ziren 2014an migratzeko hautua hartu zuten aiaralderren % 41,1a

Egin dituzten ikasketekin erlazionatutako lanik topatzen ez dutelako hartzen dute askok atzerrira joateko hautua

Biztanleriaren zahartzea

Migratzaileen perfilari erreparatuta, ikusi daiteke gizonekoak ugariagoak direla emakumezkoak baino, bien arteko tartea nahiko txikia den arren: 2014an EAetik kanpo bizitzera joandako aiaralderren % 54,5a zen gizonzkoa.

Perfil esanguratsuagoak⁽²⁾ sumatu daitezke adinari erreparatuta. Emigratzea erabakitzen duten aiaralderren gehiengoa gazteak dira. 1980 eta 2000 urteen artean jaiotakoak ziren 2014an autonomi erkidegotik kanpora joandako aiaralderren % 41,1a (gutxi gora behera 16 eta 36 urte artekoak).

Eskualdeko gazteen ihesak eragina izan dezake biztanleriaren zahartze gradualean. Zahartze hori apurka-apurka ari da gertatzen eskualdean: 2001an 6.968 pertsona zeuden 65 urte edo gehiago zituztenak, biztanleria osoaren % 17,6a. 2015ean, berriaz, adin hori zuten 8.924 biztanle kontabilizatu ziren (% 20,98).

Hiztegi lagungarria

Behatu⁽¹⁾, aztertu / Esanguratsuagoak⁽²⁾, zeresan gehiagokoak



IBAI ORTUZAR
INGALATERRA

Zer dela eta erabaki zenuen atzerrira joatea? Nola bukatu zenuen Ingalaterran?

Egia esan behar badut, ez zen inoiz hartutako erabaki bat izan, gertakari kate baten ondorioa baizik. Bikotekideak Ingalaterrara joateko beka bat lortu zuen, zazpi hilerako. Ni orduan nire kontu nengoen lanean, eta bion artean hitz egin ondoren, elkarrekin joatea erabaki genuen, nire lan egoerak hala egitea ahalbidetzen zuelako.

Nola lortu zenuen orain duzun lana? Nolako da?

Londonen bizitzea oso garestia da, eta gure hasierako usteen kontra, orduan genituen aurrezkiekin bizirautea ezinezkoa egin zitzaigun. Lana bilatzea erabaki nuen orduan. Arkitektura bulegoen zerrenda bat egin eta CVA bidaltzen

hasi nintzen e-mail bidez, nora bidaltzen nuen oso ondo jakin gabe. Berehala lortu nuen bost hilabeterako lan bat. Hura bukatzean ez zitzaidan asko kostatu beste lan bat topatzea, orain daukadana.

Hau esanda, argitu nahiko nuke kontrako kasuak ere hurbiletik ezagutu ditudala, beraz ez nuke nahi jendeak pentsatzea kanpora lan bila joatea pagotxa denik. Oso ondo atera daitezke gauzak, eta orduan egoera on batez gozatuko duzu; baina oso gaizki ere irten daitezke.

Baduzu Aiaraldera itzultzea buruan?

Noski! Zalantza izpirik gabe gainera! Gure buruari egiten diogun galdera ez da bai ala ez, baizik eta noiz eta nola. Lana faktore bat da, baina ez bakarrik. Ez nuke pentsatu nahi soldata baten arabera diseinatzen ditugunik gure biaki, jakinik hala ere, hori faktore garrantzitsua dela.

Nire kasua horien barruan guztiz ikusten ez dudan arren, jakitun naiz gazte asko Euskal Herritik irteten ari direla lan bila. Eta kasurik gehienetan kanpora egiten duten gazteek halaberrez egiten dute, ez propio aukeratuta. Izugarriko giza kapital galera da hori. Zein erraza den belaunaldi bat galtzea, eta zein zaila hura berreskuratzea!



1.463 aiaraldear joan ziren euren herrietatik 2014an, 438 EAetik kanpora

Istoria eta bizipen asko ezkututzen dira atzerrira joatea erabaki duten aiaraldearren artean. Egin dituzten ikasketekin erlasionatutako lanik topatzen ez zutelako hartu zuten askok migratzeko hautua, eta gehienek ez dakite noiz itzuliko diren.



SAIOA IBARROLA
SUEDIA

Zer dela eta erabaki zenuen atzerrira joatea lan bila? Nola bukatu zenuen Suedian?

Duela 4 urte hasi ginen ideia horretan pentsatzen. Bartzelonan bizi nintzen eta koadrila polita genuen han. Gehienak arkitektoak ginen edo eraikuntzaren sektorean lan

egiten genuen. Lanean nenbilen momentu horretan, baina lan baldintzak kaxkarrak ziren krisia hasi zenetik. Etorkizuna beti ezegonkorra, estudioan proiektu berriak noiz aterako zain.

Beraz, azkenean lau lagunok Suediara lan bila joateko erabakia hartu genuen.

Nolakoak izan ziren lehenengo pausoak lan bilaketa horretan?

Askotan esaten dugu Suediako lan munduan sartzeko lehenengo pausua ikaragarria dela eta hortik aurrera dena erraza bihurtzen dela. Gure lehenengo pausua curriculumak bidaltzea eta estudioetara deitzea izan ziren, baina suediera jakitea eskatzen ziguten gehienek.

Ez hori bakarrik, Suedian erreferentziak izatea ere oso garrantzitsua da, norbaitek zutaz zerbait jakitea behintzat. Beraz, lehenengo pausu ikaragarri hori emateko beti behar duzu aingeru bat, lehenengo aukera hori emango dizuna.

Nirea Estokolmoko udaletxe bateko hirigintza zuzendaria izan zen, eta momentu horretatik aurrera dena errazagoa bihurtu zen.

Baduzu Aiaraldera itzultzeko asmorik?

Momentuz ez dut bueltatzeko buruan, baina nork daki. Lan baldintzak eta lan giroa Suedian oso-oso onak dira eta pertsonalki oso gustura bizi naiz hemen.



BIDART LARRAKOETXEA
IRAN

Nola bukatu duzu Iranen?

Kasualitatez. Tubacexen nenbilen lanean, baina ikusita bertan geratzeko aukerak gutxi zirela beste lekuetan hasi nintzen lan bila. Hasiera batean

ez neukan asmorik atzerrira joateko, baina curriculumak bidaltzeko orduan ez nuen bereizketarik egin.

Eskaintza horietako batean "Oriente Medio" jartzen zuen kokaleku bezala, eta beldur apur bat eman zidan arren, aurrera jarraitu nuen.

Enpresa Azpeitiarra da (Sarralle) baina urteak daramatzate Iranen. Antza denez ez ginen jende asko apuntatu eskaintza honetara, eta ni aukeratu ninduten. Hasieran "Oriente Medio" zena Iran bihurtu zenean sustoa hartu genuen etxean, baina orain poztan naiz Iran izan delako eta ez Arabia Saudi edo Turkia, adibidez.

Nolako da bertako bizimodua?

Egia esan ez da hain ezberdina Euskal Herrikoarekin konparatuz. Aparte utzita tabernarik ez dagoela, Irango gazteak nahiko lagunkoia dira, festak antolatzea gustuko dute, zinemara joatea...

Baduzu itzultzeko asmorik? Zeren arabera?

Itzultzeko asmoa beti dago, baina ez daukat presarik. Hala ere, ez dakit non egongo naizen hemendik 5 hilabetera, baina horrek ez nau kezkatzen. Gustura nago hemen eta jarraitu nahiko nuke denbora gehiago, baina enpresaren esku dago hori.

Nola bukatu zenuen AuPair moduan (lan bat egitearen truke bertako familia batekin bizi den pertsona) lan egiten?

AuPair moduan bukatu nuen lan hau egin zuten zenbait pertsonen kasuak ezagutzen nituelako eta lan-eskaintza handia zegoelako.

Lana bilatzeko, familiak eta AuPair-ak kontaktuan jartzen dituen web-orri batean eman nuen izena. Zenbait familiarekin e-mail eta skype bidez hitz egin eta gero familia bat aukeratu eta haiekin ados jarri nintzen. Kontratua hitzezkoa zen, beraz ez nuen ezer gehiago egin behar izan.

Nolako da AuPair moduan aritzea?

Nire kasua nahiko berezia


da, AuPair moduan lan egiteaz aparte hezkuntza libertarioko proiektu baten parte hartzen baitut.

Beraz, esperientzia bezala oso aberasgarria izaten ari da eta, aldi berean, gauza asko ikasteko aukera eman dit.

Nolako da atzerrian lanean aritzea?

Topatu ditudan zailtasunak gauzak bide instituzionaleratik egiterako orduan izan dira. Europar Batasunean libreki mugitu gaitzkeenaren ideia ez baita guztiz zuzena.

Egia esanda ez nuen ezer espero Italiara etortzerako orduan, gauzak aurreikuspen handirik gabe hasteko ohitura daukat eta.



IÑIGO PAGAZAURTUNDUA
BARTZELONA

Zer dela eta erabaki zenuen atzerrira joatea lan bila? Nola bukatu zenuen Bartzelonan?

Etxetik hurbil bilatu nuen lehenbizi, baina ez nuen gauza positiborik lortzen. Agian nire bilaketa eremua mugatzen ari nintzela pentsatu nuen eta uda partean curriculumak bidaltzen egon nintzen etengabe. Ez nuen udazkenera arte erantzunik izan, guztiak urrun samar. Madrilen eta Bartzelonan bertan egin nituen elkarrizketak eta azkenean Katalunia aldera joateko erabaki zaila hartu nuen.


Zure egoera berdinean edo antzekoan dagoen jende gehiago ezagutzen duzu? Zer nolako egoera bizi dute?

Nire lanpostu berdinean badaude Madrileko, Valentziako, Sevillako eta baita Argentinako beste gazte asko ere egoera berdinean. Lehen aukera baten bila. Hori da zailena askotan. Izan ere, bigarren lan aukerak lehen baten ostean etorri behar dira.

Aiaraldea faltan botatzen duzu? Baduzu itzultzea buruan?

Noski botatzen dudala faltan! Familia eta lagunak beti gogoratzen ditut. Bartzelonan egotea ez dut lan moduan bakarrik ikusten, baizik eta heziketa pertsonal baten parte bezala.

Bueltatzeko asmoa badut, horretaz konturatu naiz, baina ez dakit noiz. Nire burua prest ikusten dudanean agian. Baina horretarako lan aukerak ere izan behar ditut Aiaraldean edo inguruan. Edo nire oraingo lanak gogaitzea, guztia da posible.



KORO ALLENDE
ITALIA

Zer dela eta erabaki zenuen atzerrira joatea lan bila? Nola bukatu zenuen Italian?

Unibertsitateko praktikak Galdakaon egin nituen eta amaitzean, Euskal Herriatik kanpo nola lan egiten den ikusteko gogo piztu zitzaidan. Beraz, psikologiako gradua bukatzean atzerrian praktikak edo lan egiteko aukerak bilatzen hasi nintzen.

Betidanik gustatu zait Italia, unibertsitateko hirugarren urtea

Padovan eman nuen. Venezia ondoan dagoen hiri batean.

Nola lortu zenuen orain duzun lana?

Eusko Jaurilaritzak eskaintzen dituen Global Training beketako bat lortu nuen. Herrialde askotara joateko aukera neukan, Filipinas eta Mexikora, besteak beste. Baina italiara hitz egiten dudanez eta herrialdea gustatzen zaidanez, Erromara etortzea pentsatu nuen. Gainera, nire ikasketekin erlasionatutako lanpostua da hemengo hau.

Nazioarteko erakunde batean lan egiten dut, hezkuntza, kultura eta integrazio proiektu internazionalak planifikatu, landu eta garatu egiten ditugu. Gazteria gaur egungo egoera sozialak kontzientziatzen saiatzen gara, azken boladan hain pil-pilean dagoen errefuxiatu eta etorkinen aferaren inguruan gehien bat.



MYRIAM GOMEZ
BRENDA LOZANO
DANIMARKA

Zer dela erabaki zenuen atzerrira joatea praktikak egitera? Nola iritsi zarete Danimarkara?

Lozano: Praktikak atzerrian egitea erabaki nuen esperientzia berri bat bizitzeko eta aire aldaketa bat behar nuelako.

Gomez: Aukera oso ona iruditzen zitzaidan gure lan esparrua oso aurreratua dagoen hiri batean egitea.

Nolako da zuen lana?

Brenda eta Myriam: Goizez lan egiten dugunean (egun gehienak) 7:30tan hasten gara, eta 15:30tan amaitzen dugu, 3 egun astero. Ez dugu soldatarik ezta dietarik jasotzen, baina institutuak emandako bekarekin nahiko daukagu hemen 3 hilabeteak igarotzeko. Lanean jaten dugu eta ez badugu etxetik janaria eraman nahi ordaindu behar izaten dugu. Horregatik egunero etxean ogitarteko bat egiten dugu han jateko.

Zuen egoeran dauden beste pertsona batzuk ezagutzen dituzue?

Brenda eta Myriam: Bai, Zeraobeko ikaskide batzuk beste hiri batzuetara joan dira praktikak egitera. Bestalde, gure etxeko jabea Perukoa da eta kontatu digu zenbat kostatu zitzaion hemengo bizitzara ohitzea. Gainera, lan egiten dugun zentroan badugu lagun bat Kubatik etorri zena.



AINIELLE ZUBIETA
ITALIA

Zer dela eta erabaki zenuen atzerrira joatea lan bila? Nola bukatu zenuen Italian?

Aspalditik neukan, lan egitera baino, atzerrira bizitzera joateko asmoa. Italiara etorri nintzen, aurretik Erasmus bekari esker hemen kurtso bat egin nuelako. Italiara pixka bat nekien.

_kultura

Kide berriak ditu eskualdeko buruhandi eta erraldoien familiak

Euskal Herriko mitologian oinarritutako bi erraldoi eta lau buruhandi eskuratu ditu Laudioko Basalarrina Euskal Topaguneak. Urduñako Bihotza Konpartsako kideek, euren aldetik, bi erraldoi berri aurkeztuko dituzte apirilaren 30an.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Erraldoi eta buruhandien kalejira egin zen iragan martxoaren 18an Laudio, Dolumin Barikuan. Kalejira berezia izan zen, ez baitzuten parte hartu halako okasioetan beti ateratzen diren buruhandiek (Pailazoa, Mexikarra, Kagalubias, Beltza eta Txinatarra), ez eta Laudioko jaietako sinbolo diren Terentzio eta Tomasa erraldoiek ere. Pertsonaia berri batzuek hartu zuten euren lekukoa: zazpi buruhandik (Mikolasa, Basajaun, Akerbeltz eta Sorgina) eta bi erraldoi (Tartalo eta Mari).

Aurrerantzean ere egongo da pertsonai berri horiek festetan ikusteko parada, Basalarrina Euskal Topaguneak eskuratu baititu, Laudioko Udalaren laguntzarekin. Euskal Herriko kultura, ohitura eta kondairak transmititzeko tresna izatea da helburua. "Orain arte egondako buruhandiak oso buruhandi bereziak dira, oso interesgarriak, eta umeak izan garen garaian oso maitatuak", azaldu du Basalarrinako kidea den Mateo Pagazaurtunduak, "baina gure mitologiako pertsonaien agerpena ez zen inon ikusten. Horregatik uste genuen pertsonaia horiek berreskuratzea interesga-

Bi erraldoi eta lau buruhandi berri eskuratu dituzte Laudio. Urduñan, berriz, bi erraldoi.

Laudioko pertsonaia berrien erabilera publikoa izango da

ria izango litzatekeela". Gabezia horretaz jabetuta, herriko kultura eragile eta ikastetxeekin jarri ziren harremanetan, egitasmoa egikaritzeko atxikimendua⁽¹⁾ eskatzeko. Arrankudiaga-Zolloko kide batzuk arduratu dira panpinak diseinatu eta egiteaz, eta Laudioko Udaleko sarreran daude orain, Terentzio eta Tomasa erraldoien aurrean.

Erabilera publikoa

Basalarrinako kideek azpimarratu dute erraldoi eta buruhandi berrien erabilera publiko bat bermatu nahi dutela. "Gure asmoa da eskoletan zein bestelako gune edo festetan norbaitek kalejiraren bat antolatu nahi izanez gero buruhandi eta erraldoi berriak eskuragarri izatea", jakinarazi du Pagazaurtunduak.

Urduñan, bi erraldoi

Baina Laudio ez da kalejiretarako pertsonaien taldera kide berriak batu dituen herri bakarra. Urduñako Bihotza Konpartsak ere badu horretarako asmoa. Bi erraldoi berri aurkeztuko dituzte apirilaren 30ean, Konpartsaren

15. urteurrena dela eta.

Buruhandi eta erraldoien sustatzea da jaietako talde horren helburu nagusietako bat. Konpartsa sortu eta berehala ekin zioten Kultur Etxean zeuden eta 50 urte baino gehiago zituzten erraldoiak konpontzeari.

Orduetik ona beste hainbat pertsonaia sortu dituzte: Txomin serenoa, Dantzari erraldoiak, Bihotza, Batibomba, Sabina bainularia eta Benita Zazpi Zapi. 2013an "Buruhandi historikoak" berpiztu zituzten, 50eko hamarkadan existitu ziren irudien erreplikak.

Maiatzean, Urduñako Edadetuen⁽²⁾ Egoitzan jarriko dituzte buruhandi guztiak erakusketa batean ikusgai.

BIDEOA: Laudioko erraldoi eta buruhandi berrien aurkezpena



Hiztegi lagungarria

Atxikimendua⁽¹⁾, bat egitea / Edadetu⁽²⁾, pertsona nagusia



Txani
Rodriguez
IDAZLEA

_Kamerinoa

Algarabia

Aspalditik egon dira Laudio flamenko dantza taldeak. Nik neuk parte hartu nuen urte batez Andaluziar Etxearen taldean. Neure burua soineko loredu batekin eta ta-koidun zapatekin ikusten dut. 80ko hamarkadan ez zen ohikoena Laudio flamenkoa dantzatzea.

Gehienetan Laudio bertan dantzatzen genuen, bai Andaluziar Etxean eta baita Herrien Jaialdi Kulturetan ere, Herriko plazan. Beste batzuetan, zenbait topaketetara (andaluziarren topagunetara batik batik) joaten ginen, eta Barakaldon, Arrasaten edo Gasteizen egiten genuen dantza.

Neure oroitzapenetan euria ari du, bizkarrean hotza sentitzen dut, eta gona igo behar dut parpailak putzutan busti ez daitezten.

Urte asko pasa dira, baina flamenkoak bizirik dirau geure herrian. Egun, zenbait talde daude, haien artean, Algarabia dantza taldea. Ilusio handia jartzen diote Algarabiako kideek euren ekimenari. Ahalegin horrek emaitzak eman ditu: oso ondo egiten dute dantza talde horretako neskek. Atsegina da benetan euren koreografiak ikustea.

Gainera, orain, Andaluzia Etxearekin lotuta dauden ekitaldietan ez ezik, beste zenbait jardueretan ere egiten dute dantza: SOS Lamuza Parkearen Jaialdian, Laudioko Musika Bandaren emanaldietan...

Ondo deritzot: flamenkoa ez da Andaluzia edo Extremadura lurraldeen ondarea soilik; flamenkoa sentimendu eta bizitza ulertzeko modu bat da, eta horrek ez du koordenada geografikorik.



_kultura

_kultur leihoa



Urtzi Odriozola
BIDEO-JOKOAK

Errealitate birtuala eta areagotua dira bideojokoaren etorkizun hurbila



Bizitza errealean bizi ezin diren hainbat esperientziagero eta modu errealaigoan biziartzeko teknologiak garatzen ari dira. Hauen artean ezagunenak errealitate birtuala edota errealitate areagotua bezalako teknikak dira. Urte askotako akatsen ostean, badirudi azkenean errealitate birtualak film baten parte izan litezkeen hainbat esperientzia biziartzeko aukera emango digula.

Irudi grafikoen kalitatearen hobekuntzek (joko batzuetan ia errealitate ukitzera iritsi diren) edota Oculus Rift edo Playstation VR bezalako gero eta gailu aurreratuagoen garapenen ondorioz, inoiz aurretik ikusi gabeko erabiltzailearen arreta maila lortzen duten produktuak garatu dituzte.

Adituen ustez, gaur egungo teknologia erabiltzaileak asetzeko prestatuta dago eta urte honetan gorputzaren mugimendua edota ahotsa bezalako interakzio naturalak ere gehituko zaizkio errealitate birtualari.

Errealitate birtualak, beraz, mundu errealean existitzen ez diren inguruneak hain errealismo handiz ikusteko aukera ematen du ezen eta, beste mundu batean zaudenaren sentsazioa sortzen baitu. Teknologia hau ez da errealitate areagotuarekin nahastu behar, horrek mundu errealeko irudiak elementu birtualekin zuzenean nahasten ditu gailu baten bitartez. Mugikorretako aplikazioak, GPS edota bideojoko askotan aurkitzen dira mota horretako adibideak.

Azken aldian enpresa handiek errealitate birtualaren aldeko jarrera hartu badute ere, errealitate areagotuaren aplikazioak ere infintuak dira.

DANTZA

Laudio eta Orozkoko kaleak alaituko dituzte euskal dantzek, Ubixeta eta Intxarkundiari esker

Euskal dantzek zeresan handia emango dute apirilean Aiaraldean. Hilaren 5etik 10era II. Euskal Dantza Astea ospatuko da Orozkon, Ubixeta dantza taldearen eskutik. 24an, berriz, Dantzari Egurenaren VII. edizioa egingo da Laudion, Intxarkundia dantza taldeak antolatuta.



MUSIKA

Egoitz Uriarte audioarra taldekide duen Green Valley taldeak "Ahora" disko berria kaleratu du

Bere bosgarren diskoa kalera-tu du Green Valley reggae taldeak. "Ahora" izena du Egoitz Uriarte audioarra baxujole moduan duen taldearen lan berriak. Diskoa interneten dago entzungai, taldeak berak eskegita. Ekin diote aurkezpen kontzertuak egiteari. Udan Hego Amerikara bidaiatzea aurreikusi dute.



SORMENA

"Herria eraldatu nahi dugu, hainbat emakumeren diskurtsoen bidez"

"Zaskaleari" izeneko egitasmoa sortu dute Laudion jatorri ezberdinetako hainbat emakumek. Sormenaren bidez emakumeen guneak sortu nahi dituzte.



Hainbat emakumek osatzen dute taldea. Argazkia: aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Zer da Zaskaleari?

Talde honetan elkartu gare hainbat emakume udalak antolatutako tailer batean parte hartu genuen, Skolastika elkartearen bitartez eginikoan. "Sorkuntza emakumeen" zuen izena tailerrak. Teknika ugari landu genituen eta oso ilusio-natuak geunden proiektu horrekin: sorkuntza garatzeko emakumeen gunea izatearekin literaturan, komikigintzan, ilustrazioan, artean... Pena eman zigun ikastaroa amaizteak. Hortik sortu zen ideia. Guretzako leku bat nahi genuen.

Sorkuntzaren esparru batzuk aipatu dituzue, baina zer landu nahi duzue?

Hainbat adierazpen modu erabili nahi ditugu. Asmoa eremu publiko eraldatzea da, herria aldatzea hainbat emakumeren diskurtsoen bidez. Horretarako ekintza poetikoak, muralak, antzerkia... erabiliko ditugu, taldean erabakitzen denaren arabera.

Zerbait prestatu duzue?

Horretan gabiltza. Tailerrak prestatzen hasi gara, beste emakumeek parte har dezaten. Diag-

nostikoa egiteko deia ere zabaldu dugu bi galderen bitartez. Edonork erantzun ditzake, zein leku aldatu nahi dituen herrian iradoki eta zeintzuk izan diren bizitza aldatu dieten emakumeak aipatuz.

Alde batetik, hirigintzan eragin nahi dugu eta, bestetik, bizipen-tailerak egin nahi ditugu. Tailer horietan egiten dena kalean islatzea da asmoa, emakumeak berriro egon daitezkeen kalean.

Noiz hasi nahi dituzue tailerrak?

Ahalik eta lasterren. Tailerretan, esan bezala, guretzat garrantzitsuak diren emakumeen inguruko lanketa egingo dugu. Bestalde, orain dela gutxi hasi garenez emakume elkarteekin harremanetan jartzea gustatuko litzaiguke.

Etwasol eta Solastiar elkarteetakoekin kontaktuan egon gara baina beste talde batzuekin ere hitz egin nahi dugu, jende orok bere lekua izan dezan, baita beste herri batzuetako emakumeek ere.

Bi astean behin Laudio Kulturara Etxean elkartzeko gara eta aukera dago etortzeko, bestela zaskaleari@gmail.com helbidera mezua idatz dezakezue baita.

Koreografia txapelketaren bigarren edizioa, ekainaren 12an



Iaz egin zen lehiaketaren lehen edizioa. Argazkia: Aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA |

Ekimenaren lehen edizioak iaz izandako arrakasta ikusita, Koreografia Txapelketaren bigarren edizioa prestatzeari ekin dio SOS Laudioko Lamuza Parkeak. Ekainaren 12an egingo da, Aldai Plazan. Antolatzaileek aurreratu dutenez, lais-

ter irekiko da izena emateko epea sosparkea.wordpress.com web-orrian. Alabaina, hainbat aldaketa egongo dira. Nagusia, hiru kategoria "malgu" egongo direla da: Haurrena (0-12 urte), gazteena (13-18 urte) eta helduena (18 urtetik gorako herritarrena).



Egoitz Bernaola

HISTORIAZALEA

_Lurpetik

Zoriak eta zorigailzak

Iraganarekin apurtu eta bizi berri bat hasi. Hori izan da, historian zehar, gaztaroko paisaiak atzean utzi eta esperientzia berrien bila ontziratu ziren aiarar ugarien izendatzaile komuna. Abentura hauek bultzatu zituzten arrazoiak norberaren baldintza pertsonalak bezain anitzak dira: sozialak, ekonomikoak, familiarrekoak... Baina, gehienetan, beharra bera izan da horien eragile nagusia: irauteko premia, hasteko premia, alde egiteko. Cristóbal de Zubiarte abadea Baranbion jaio zen XVII. mendean. Abaroako elizan zenbait urtez jardun ostean Gaztelan finkatu zen. Denborarekin, baina, gertaera edo bizipen erabakigarri eta misteriotsu bat igaro ondoren —«algún azar y desgracia», agirien hitzetan—, ospa egiteko behararen aurrean ikusi zuen bere burua. Eta ahalik eta urrunen, hobe. Gauzak horrela, Mexikora iritsi zen 1687 urtean. Bertan Domingo de Retes artzniegar kapitain aberatsaren etxaldean babesa aurkitu zuen, San Diego del Jaral-en, bere ondasunen administratzaile gisa. Cristóbal jaunaren premia nagusia —erditik kentzea— konponduta zegoen orain. Baina, horrez gain, beste neurri bat hartu zuen: abizena aldatzea, bere benetako nortasuna Ameriketatik zebiltzan herrikide ugarien begietatik ezkutatzeko. Honela, Cristóbal de Zubiarte jaun ohia Cristóbal de la Puente bihurtu zen. Hamaika urte geroago, Gaztelatik ihes egitean bizi izandako bere lehenengo irudizko «heriotzaren» ostean, benetako heriotza iritsi zitzaion gure protagonistari: egiazko amaiera, behin betikoa. Identitate berri baten atzean birjaiotzeko beharrik gabe. Beste mundu horretan iraganeko mamuren bat edo beste bere zain izango ote zen edo ez, ez dakigu.

kirola

ROLLER DERBY

“Bizitzako hainbat esparrutan eragiten dizu roller derbyak”

IRUNE TELLEZ ROBLES (Urduña, 1988) “Botxo Killers” taldean dabil roller derbya praktikatzen. “Acid queen” ezizenarekin jokatzeko dituzten partidak Tellezek.

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Zer da roller derbya?

Roller derbya patinez jokatzeko den estrategia eta kontaktuzko kirol bat da. Gaur egun dauden lehiaketa eta ligetan emakumezkoak dira nagusi.

Bere horretan, jokoa pista eliptiko batean gauzatzen da. 30 minutuko bi zati daude eta bakoitza bi minutu iraun dezaketen jam izeneko jokaldietan zatitzen da. Jam bakoitzean, talde bakoitzeko 4 blocker (blokeatzaile) eta jammer bana ateratzen dira. Jammerak blockerrak sahiesten saiatu behar dira, eta horrela beste taldeak blocker bakoitzeko puntu bana irabazten du.

Nire ustez kirol bat baino gehiago da roller derbya. Azken finean, fisikoki ez ezik, bizitzako hainbat esparrutan aldatzen zaitu.

Botxo Killers taldea autogestioan oinarrituz antolatzen da. Komiteen bitartez funtzionatzen du: entrenamenduak diseinatu, partiduetarako pista lortu, epaileekin kontaktuan jarri, kontzertuak antolatu eta merchandising-a egiten dugu, taldearen biziraupena bermatzeko.

Nola animatu zinen taldean izena ematera?

Orain dela urte batzuk ezagutu nuen pelikula bati esker izan zen dena: “Whip it”. Gaur egun, roller derbya nola jokatzeko den jakinda, pelikula gehiegizkoa dela esango nuke. Dena den, kirol oso interesgarria iruditu zitzaidan eta internetetik informazioa topatzen hasi nintzen, eta Aiaraldetik hurbilen zegoen taldea bilatzen. Hasi batean, baina, ez nuen talderik aurkitu. Geroago ama izan nintzen eta bilaketari uko egin⁽¹⁾ nion pasa den udara arte. Lagun baten bitartez jakin nuen Bilbon talde bat zegoela eta haien partida ba-

“Hiru urte baino ez daramatza kirol honek Euskal Herrian. Baina gutxika-gutxika badoaz kirolari eta jokalar berriak gehitzen”

tera joan nintzen. Izugarria iruditu zitzaidan. Giro ezin hobea zegoen taldekide eta aurkako jokalarien artean.

Beraz, Botxo Killers-eko taldekideekin kontaktuan jarri nintzen, patin batzuk lortu eta haiekin entrenatzen hasi nintzen zerotik hasita.

Kutsu feminista handia daukan kirola da roller derbya, ezta?

Munduan emakumezkoen taldeak dira nabarmen eta berez emakumezkoen inguruko kezka, baloreak eta aldarrikapenak aintzat hartzen⁽²⁾ dira. Beste kirolekin ez bezala, kirol honetan emakumezkoek jendarteren eta espresuki kirolean betetzen duten rol eta kanon estetikoetan eragiten dute. Nola? Emakumeen gaitasunak balorean jarriz eta

eredua emanez, adin eta izaera fisiko aniztasunetik abiatuta.

Duela gutxi zure lehenengo partida ofiziala jokatu zenuen. Zer moduz?

Pixka bat urduri, lehenengoa izan zelako eta hilabete bat baino ez naramalako ligakoekin entrenatzen. Primeran pasatu genuen. Salamankan jokatu genuen Kinkicharren aurka. Esperientzia oso positiboa izan zen.

Jende asko zegoen harmailetan. Kirol honen jarraitzaile asko dago Euskal Herrian? Zenbat talde daude?

Roller derbyak hiru urte baino ez daramatza Euskal Herrian, baina gutxika-gutxika jarraitzaile eta jokalar gehiago gehitzen ari dira. Benetan pozten nau horrek, lehenengo partida ikustera datozen pertsonak normalean ez dakite zer espero behar duten. Baina erraz katibatu egiten duen kirola da eta geroz eta jarraitzaile gehiago ditugu.

BIDEOA: Irune Tellez Robles “Botxo Killers” taldean jokatzeko



Hiztegi lagungarria

Uko egin⁽¹⁾, ezeztatu, albo batera utzi / Aintzat hartu⁽²⁾, kontuan hartu

TXIRRINDULARITZA

Mikel Landa garaile Garrastatxu gainan



BEÑAT BILBAO LARRORI



Garrastatxu gainan bukatu da etapa. Argazkia: Mikel Olabarria

Mikel Landak, Sky taldeko txirrindulariak, irabazi du Garrastatxun amaitu den Euskal Herriko Itzuliaren 2. etapa. Bi kilometro falta zirenean Wilco Keldermanen (TLJ) erasoari erantzun eta helmugan segundo bateko tarte ateraz irabazi du Zuiaiko gazteak Aiaraldea zeharkatu duen etapa euritsua. Sailkapen nagusiaren lehen postua eskuratu du gainera.

Egungo ihesaldian 4 txirrindulari izan dira hasieratik eta Caja Rural talde nafarreko Angel Madrazo sartu da bertan. Etapa aurrera joan ahala, lasterketa burua txikitzen joan eta bi mutil bakarrik geratu dira buruan Madrazo bera eta Denifl. Nahiz eta 4 minutuko abantaila izan duten, 11 km. faltan harropatu egin dituzte.

Eta orduan hasi dira komeriak tropeleko lehen postua nork lortuko Garrastatxurako igoeraren hasieran ondo kokatuta joan ahal izateko. Favorito guztiak aurrean sartu dira eta orduan iritsi dira lehen erasoak. Erasoen

ondorioz bi txirrindulari aurreratu dira, Landa eta Kelderman, eta haien artean jokatu dute etaparen garaipena, Mikel Landa zuirra gailenduz.

Harrigarria izan da arabarren garaipena, oso gutxi lehiatu baitu aurten. Beste favoritoek lehiaketan egun gehiago igaro dituzte eta beraz kontuan hartzeko txirrindularia izango da Euskal Herriko Itzuli honetan.

Azkenik, atzetik beste favoritoak banan-banan heldu dira euren artean segundo gutxi ateraz. Amaierako sailkapenerako jokoa oso irekia dago oraindik eta larunbatera arte borrokatu behar dute Eibarreko podiuma zapaldu ahal izateko.

Araozak Amurrión

Lasterketan arazoak izan dira, Amurrioko zatian, elizaren alboan dagoen errotondan olio putzu bat izan baita. Itzuliaren antolakuntzak Amurrioko kanpoaldetik pasatzeko hautua egin du, Amurrión kokatuta zeuden bitarteko helmugak kenduz.



garrastatxuko txosna

ZATOZ eta GOZATU!

ORDUTEGIA:
Larunbatak 10,00 - 22,00
Igande eta Jai-egunak 10,00 - 20,00

Hamaiketakoak, errazioak, bazkariak, afariak, barazkijaleentzako menuak,...

ERRESERBAK: 653741625

_kirola

TXIRRINDULARITZA

“Profesionala izatea gustatuko litzaidake, zaila izan arren”

AITOR REY GASTAKA (Laudio, 1993), pista estaliko txirrindularitza aritzen da eta lorpen garrantzitsuak erdietsi¹⁾ ditu. Profesionala izatea da bere helburua.

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Elite mailan aritzen zara pista txirrindularitza. Zer nolako denboraldia egin duzu?

Aurtengoa da nire lehenengo urtea elite mailan. Pista prestakuntza aritu naiz, errepideko denboraldia ondo prestatu ahal izateko.

Denboraldia hasi berri da. Momentuz bigarren postua lortu dut Almagronen (Ciudad Real). Gai nontzeko lasterketan taldeko beste kide batzuk lagundu ditut.

Sentsazio hauek horrela jarraitzea edo hobera joatea espero dut. Hala ere, gazte kategoriako bi urtetan pista denboraldi osoa egin nuen eta Euskadiko txapelkun izan nintzen bi urte jarraian. Euskadiko errekorra lortu nuen bakarkako lasterketan eta Espainiako txapelketan urrezko domina lortu nuen puntuazio frogan, eta zilarrezkoa bakarkakoan.

Horrez gain, Europako txapelketa joan nintzen Espainiako selekzioarekin.

Zergatik aritzen zara pista?

Juniorretan hasi nintzen pista, 17 urterekin, kadetetako talde zuzendariak gomendatu zidalako.

Errepideko txirrindularitza aritzen nintzen, eta denboraldia prestatzeko modu ona zela erakutsi zidaten.

Txirrindularitza ordea, 11 urterekin hasi nintzen. Nire aita txirrindulari martxetara joan ohi zen, eta horren ondorioz gustatzen hasi zitzaidan.

Zeintzuk dira pista eta errepidearen arteko ezberdintasunak?

Ezberdintasun nabarmena²⁾ bizikleta da. Pistako bizikletak ez dauka ez frenorik ez pinazirik, plater eta pinazia besterik ez duzu eraman eta denbora guztian egon behar duzu pedalei eragiten. Errepideko bizikletan, ordea, bi plater eta hamaika pinazia dituzu aldatu ahal izateko. Beste ezberdintasun bat gurpilea da. Pista lentikularrak dira, perfil handikoak. Errepidean, berriz, perfil baxuko edo erdiko gurpileak erabiltzen dira.

Zer nahiko zenuke etorkizunean?

Zaila izan arren profesionala izatea gustatuko litzaidake, ia txirrindularia den jende guztiari bezala, baina momentu honetan ez da lan erraza izango.

Hiztegi lagungarria

Erdietsi¹⁾, lortu / Nabarmena²⁾, argiena



FUTBOLA Arabako Kopako lehen partida irabazi du Altzarrate K.E.-k, hiru gol sartuta

0-3 irabazi du Laudioko Altzarrate K.E.-k Arabako kopako lehen partida San Viator taldearen aurka. Datorren igandean (apirilak 10) izango dute hurrengo txanpa. Laudio taldearen aurka. Zazpi partida jokatu dituzte guztira maiatzaren amaierara arte luzatuko den norgehiagokan.



MENDIZALETASUNA Zazpi ekintza antolatuta dituzte apirilako Urduñako Txirrindulari Elkarteak eta Txarrazok

Apirilean gauzatuko duten kirol egutegia aurkeztu dute Urduñako Txirrindulari Elkarteak eta Txarrazok Mendi Taldeak. Bizikleta zaleek, hilero bezala, larunbat guztietan egingo dituzte irteerak. Ibilaldien informazio guztia www.scorduñesa.com webgunean eskuratu daiteke.

KICK BOXING Borroka ugaritan parte hartuko du Laudioko Hajime Fight Club taldeak



ERREDAKZIOA |

Laudioko Hajime Fight Clubeko zenbait borrokalari 3 emanalditan parte hartuko dute apirilean eta maiatzan.

Hasteko, larunbat honetan (apirilak 9) Iker Arza, Daniel Tojo eta Ivan Espiritu Zallan arituko dira, Mimetiz pilotalekuan 10:00etatik aurrera.

Neoprofesional gisa

Astebete barru klubak beste hitzordu bat izango du Gasteizen, Mendizorroztako kiroldegian. Asier Ispizua borrokatuko da Jose Luis Bailónen aurka.

Ez da lehenengo aldi kirolarientzat. Berez, Asierrek ordezkatu du Ander Sanchez, bera ezingo baita lehiatu. Bukatzeko, maiatzaren 7an Portugaleteko Zubialde kiroldegian egingo den emanaldian ere egongo da Asier Ispizua. Neoprofesional kategoriako borroka izango dira eta 2 minutuko 4 asalto egiteko aukera izango du.

DUATLOIA

Mendiko duatloia ikuskizuna Arespalditzara helduko da apirilaren 24an



Lehen edizioa izango da aurtengoa. Irudian, Amurrioko duatloia. / aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Xabi Zalbide Etxeberria

San Prudentzioko Jaiek aurtengoa ederra izango dute aurtengoa Arespalditzan, Aiarako Mendi Duatloia lehen edizioari esker. Iñaki Isasi Taldea, babesle eta kolaboratzaile askoren laguntzarekin, buru-belarri jarri da lanean azken asteotan proba prestatzeko, eta dagoeneko jakitera eman dute zein izango den eguneko egitaraua.

Probak hiru sektore izango ditu: lehenengo korrika, bigarrena bizikletaz eta azkena osterara ere oinezkoa. Horretarako, bi zirkuitu atondu dituzte antolatzaileek: Oinezko sektorekoak 2,5 km izango ditu eta herriguneari inguruak zeharkatu ditu, asfaltoa, larreak eta baso tartekatuz. Bizikletarako zirkuituak berriz 10 km inguru izango ditu. Agirre auzoraino joango da handik Pagonabarra mendia magale-

tan kilometro batzuk egin eta atzera herrira itzultzeko. Ibilbideak basabideak eta mendiko bideak tartekatzen ditu.

Lasterketa 11:45ean hasiko da eta irteera, helmuga eta sektoreen arteko trantsizioak Arespalditzako Herriko plazan egingo dira.

Umeentzako lasterketak

Nagusientzako probaren aurretik, haurrek ere aukera izango dute duatloia probatzeko. Hasteko 10:45ean 10 urtetik beherako txanda izango da; 450 metro egin beharko dituzte oinez eta 650 metro bizikletaz plaza bertan hasi eta bukatuta. Ondoren, 11:15ean, 2003-2005 bitartean jaioak lehiatuko dira; oinezko ibilbide berbera izango dute eta bizikletaz itzuli bat gehiago, 1,3 kilometro.



Beñat Intxausti - Lere Olaberria

Sekulako puntua!

emakumeenbira.eus eta itzulia.eus #EUSberdinak dira. EUSberdinu zu ere tropeletik eta sortu zure .eus domeinu-izena.

15 euro

Apirilaren 1etik 17ra prezio berezian.

+34 943 085 051

info@domeinuak.eus



www.domeinuak.eus

_Herriko plaza

_agurrak

Bidali zorion agurra egunkaria@aiaraldea.eus helbidera apirilaren 15a baino lehen. Interneten zuzenean argitaratu ditzakezu aiaraldea.eus-eko komunitatean.



June
Zorionak June! 11 urte mundu eder honetara eta gure ondora etorri zinela! Marrubizko muxuak!
Familia




Noa
Zorionak! 9 urte bete eta aurten zuretzat inoiz baino bereziagoa izateagatik! Txokolatezko muxuak!
Familia



Elene
Zorionak Elene! Ondo pasa zure urtebetetzean. Musu pila etxeko guztien partez.
Etxekoak



Nerea
Zorionak Nerea! Ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat zuretzat!
Edorta eta Edorta txiki



Nerea
Zorionak Nere!! Beste urte batean zehar ezer ahaztu ez dugula ziurta-teagatik 19 nola merezi dituzulako.
Zure txitak

_denborapasak

		Bularraldea	Txikiak	Zabaldia	Bizkaieraz, bezalakoak
DEITURA		Hura doa, ni ...	Atomo kargaduna		
Gipuzkoako basilika					
Ugaztun afrikarrak					
Pl., garbiza-leen kafea	Nahastura trinkoa	Bokal biribila	Trebe		
Ikerkuntza lana	IZENA	Gai itsaskorra	Nerabeza-roan dago	Dago	
				Ardiaren ar	
Nirea, neurea			Gauza, gai		Momentua
Erraz fidatzen da			Gipuzkoako ibaia		
				Honakoa	
				Joan den urtean	
Titanioa	Asparrenako auzoa				Nitrogenoa
Jateko	India				Ornoaren erdian
		Herri baxenafartarra			
		Tona, labur-labur			
Ezin kantatuzkoa					

❖ Kulturista laudioarra

OSO ERRAZA

		8	4		3
5	4		2	6	8
3		5		4	
3	4	6	2	1	9
4	2		5	7	3
9	5		8	2	4
6	7				5
5	4		8	3	2
9	2	3	7	5	8

ERRAZA

		6		9	5
8			5	3	
	4	1	9	2	
	3		9	4	
2	9			6	7
8	7			5	
	7		2	5	8
9		3	1	6	4
			8	1	6

ZAILA

	2	5	4		8
8	3		2	5	4
6		7			
	8	6		7	
1	2	7	5	6	
		1	4		
3	6	5			
4		9	2	8	6

OSO ZAILA

		6		4	
8	7		3	9	
3	4		5	7	
		9	8	6	
5			3		
	8			3	
7	4				
		7	9		2
9			2		6

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai:
<http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



_horoskopoa



TARTALO

01.20 - 02.18
Zailtasunak garaitzen ikasten dugu, asko kostata ere esfortzarekin lorpenak daude gehienetan. Ez jarri zalantzan zure burua. Zure burua maitatu eta sinisten duzunean bizitzaren oztopoak saihestuko dituzu arazo gabe!



HERENSUGE

03.21-04.20
Lanak egiten beti berandu zabilta, ondorioz iluntzean indarririk gabe gelditzen zara eta lagunekin tarte bat hartzeko gogoak joaten zaizkizu. Aisia izaten ere ikasi behar da, azkenean lagunak alde batera utziko zaituzte bestela.



BASAJAUN

05.21 - 06.20
Lagunekin ez baina bikotearekin bai. Lagunen proposamenak ahazten dituzu, ez duzu planen aurrean erabakirik hartzen ez eta erantzun argirik ematen ere, bikotearekin aldiz baietz guztiari. Kontuz ohitura txar horrekin; lagunak zaintzen ikasi!



GAUEKOAK

07.21 - 08.21
Lehenengo inpresioari garrantzi gehiegi ematen diozu. Pertsona berriek sentiarazten dizutenaz fidatzen zarela diozu. Ezer ez da uste bezain ona ezta uste bezain txarra ere. Ez ezazu burua itxi eta utzizko denborari pertsona hori nolako den erakusten.



AKERBELTZ

09.23 - 10.22
Alferrak baino alferragoak gara. Alferkeria da gure akats nabarmenena. Mundua zertan bihurtu den kritikak ten duzu. Kritika egitea ondo dago baina zure burua zalantzan jarri al duzu? Ez al zauden zure bizitza sistema hau elikatzen?



ZIRIPOT

11.23 - 12.20
Zein polita den bizitza. Zu bai polita eta are politagoa mundua ikusteko duzun era. Oztopoak gainditzeko errazagoa da arazoei behar baino garrantzia gehiagorik ez ematea.



GALTZAGORRIAK

02.19-03.20
Maitasun garai onak eta latzak daudela argi dago, baina maitasun keinu faltari erremedioa jarri iezaiozu, pertsona asko baitaigo pertsona bakoitzarentzat. Izan kontuan zu zarela zure zoriontasuna bilatzeko ardura duen pertsona bakarra.



LAMIA

04.21 - 05.20
Azterketa garaia urrun ikusten duzun guztiak eragina izango du emaitzetan. Unean unekoa gainditzeko saiatu zaituz aurrerantzen gutxiago nabaritu dezazun. Animo!



BASANDERE

06.21 - 07.20
Oporrak bukatu eta zoritxarrez lanera berriro, baina... Opor aurretik baino nekatuago sentitzen zara orain, besteentzat oporrak zuretzako etxeko lanak dira. Oraingoa ikasgaia izan dadila aurrerantzen garbiketa pikutara bidaltzeko.



JENTILAK

08.22 - 09.22
Munduan dauden gaitzak konpontzeko ahalmena duzula uste duzu, baina zu ez zara jainkoa. Bizitza honetan konponbideak izateko borondatea behar da, baina badira zure eskuetan ez dauden hainbat gauza, ez sentitu errudun horientatik.



MARI

10.23 - 11.22
Kritikak ez ditugu gustuko, norberaren akatsak gogoraraztea gorroto dugu eta aipatzen dizkiguten horiek barkatzea zaila egiten zaigu. Bete-betean asmatzean zail egiten zaigu "ahultasuna" erakustea, baina ausardiaren seinalea da hori.



SUGAAR

12.20 - 01.19
Etorbizunean pentsatzeko joera daukazu. Ez iezaiozu geroari hainbeste garrantzirik eman. Egunerokoaz gozatu eta bizi. Dena sentitzen ikasi, segundo hauek azkenean bailira bezala. Egunero jaiotzen eta hiltzen gara.

_irakurlearen txokoa

_agenda

04.08 OSTIRALA

17:00 LAUDIO
TAILERRA
Emakumeen bizipenak, haurtzaindegi zerbitzua egongo da
Kultura Etxea

18:00 LAUDIO
ERAKUSKETA
"Paisaiak eta erretinak" margoen inaugurazioa
Kultura Etxea

18:00 ARTZINIEGA
TAILERRA
Robotika
Liburutegia

18:00 LAUDIO
LIBURU AURKEZPENEA
"Los verdes campos" Amado Gomezzen eskutik
Liburutegia

18:00 AMURRIO
A.G.A.-KO 9. URTEURRENA
Dokumentala, afaria, kontzertua
Gaztetxea

19:00 LAUDIO
KONTZERTUA
"Nola belztu behar zuria", Bide Ertzean eta Koadroka
Lanbide Heziketa

19:00 LAUDIO
ZINEMA ETA HITZALDIA
Koloretakako txoriak
Kultura Etxea

19:00 OROZKO
AUZO BATZARRA
Murueta
Soziala

21:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Milenrama eta Disaster Now
Orbeo Etxea (4 €)

04.09 LARUNBATA

09:00 LAUDIO
BERBARENTURA
Mendi bizikleta txangoa
Institutua

10:00 OROZKO
AUZO BATZARRA
Zalao
Baseliza

11:00 URDUÑA
IKASTAROA
Sakelako GPS aplikazioa
Txarrazoren bulegoa

DESFILEA



04.09 LARUNBATA

17:00 Umeen desfilea
19:00 Nagusien desfilea
Amurrio Antzokian, Apymca eta Apdema elkarteek antolatuta.

12:00 OROZKO
AUZO BATZARRA
Ibarra
Txokoa

16:00 URDUÑA
ASTINDU BIHOTZA
Elkartasuna, zumba emanaldiak kardiopatiak dituzten umeentzat
Frontoia

17:00 URDUÑA
GURASO ESKOLA
Familia elikadura
Alhondegia

17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Globo aerostatikoan tailerra eta askaria
Lamuza Parkeko ludoteka

18:00 URDUÑA
III. EUSKAL DANTZEN ASTEA
Alardea, pintxoak eta perkusio tailerra
Herrigunea

21:30 URDUÑA
BIHOTZA ASTINDUZ
Gwa Ya taldearen kontzertua eta askaria
Gaztetxea

23:00 LAUDIO
DJ EMANALDIA
Global Bass Collective, tabernaren X. urteurrena
Sorgin taberna

04.10 IGANDEA

10:00 OROZKO
AUZO BATZARRA
Arbaitza
Txokoa

10:00 LAUDIO
TAILERRA
Hilerokoaren zikloa
Kultura Etxea

11:00 OROZKO
III. EUSKAL DANTZEN ASTEA
Kalejira, alardea, bazkaria, erromeria...
Herrigunea

17:00 MAROÑO
IGANDE ARRATSALDEAK FAMILIAN
Antzerkia, tailerra eta askaria
Eliza

17:30 AMURRIO
UMEEN AISIALDIA
Oliver Magoaren ikuskizuna
Antzokia

04.11 ASTEARTEA

20:00 LAUDIO
KONTZERTUA
-1 eta Zorra
Orbeo Etxea (5 €)

20:00 LAUDIO
MOBILIZAZIOA ETA ARGAZKI HERRIKOIA
Amnistiaren norabidean Euskal Presoak Etxera
Zumalakarregi etorbidea

04.12 ASTELEHENA

17:30 ARTZINIEGA
IPUIN KONTALARIA
Teo eta gynkana jokoa
Liburutegia

04.14 OSTEGUNA

17:00 URDUÑA
IPUIN KONTALARIA
Liburutegia

04.15 OSTIRALA

19:00 OROZKO
AUZO BATZARRA
Goikiria
Txokoa

20:30 AMURRIO
UMOREZKO ANTZERKIA
La cena de los idiotas
Antzokia (8 €)

04.16 LARUNBATA

09:30 OROZKO
IKASTAROA
Jendaurrean hitz egiteko
Kultur Etxea

11:00 OROZKO
AUZO BATZARRA
San Migel
Baseliza

11:00 LAUDIO
DANTZA TAILERRA
Afro Kubatar dantza
Kiden Zentroa

A.G.A.-REN IX. URTEURRENA



04.16 LARUNBATA

11:00 Futbito txapelketa
12:00 Umeentzako jokoak
12:30 Uluka taldea
13:30 Trikipoteoa
14:30 Herri bazkaria
19:00 Kalejira
22:30 Bad Sound System, Patx&Run...

16:30 ARTZINIEGA
TXIRRINDULARITZA
IV. Master Klasikoa
Herrigunea

17:00 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Deskalabru zientzalarien ganbara ikuskizuna
Lamuzako ludoteka

20:00 AMURRIO
UMOREZKO ANTZERKIA
Cada loco con su tema
Antzokia (8 €)

04.17 IGANDEA

08:00 LAUDIO
OXIGENOA EUSKARARI
Orientazio lasterketa
Herrigunea

10:00 ARESPALDITZA
AIARAKO JAIAK
Prontxi mendi ibilaldia
Herrigunea

10:00 LAUDIO
ELKARTASUN LASTERKETA
In Real Time Etiopia
Zumalakarregi etorbidea

19:00 URDUÑA
KONTZERTUA
Diego Martin musikaria
Antzinako Andra Mari
Ikastetxea

20:00 AMURRIO
UMOREZKO ANTZERKIA
El método Grönholm
Antzokia (8 €)

10:00 LAUDIO
Il In Real Time Run with Ethiopia
LASTERKETA
Zumalakarregi kalean

04.19 ASTEARTEA

17:30 ARTZINIEGA
IPUIN KONTALARIA
Es un libro
Liburutegia

19:00 LAUDIO
SAN ROKE JAIAK
antolatzeako asanblada
Kultur Etxea

ZINEMA

04.09 LARUNBATA

"EL RENACIDO" LAUDIOKO LHUI 17:30ean eta 20:30ean (3 €)

04.10 IGANDEA

"ASTERIX EN LOS JUEGOS OLIMPICOS" URDUÑA, ALHONDEGIA 17:30ean (1 €)

"CIEN AÑOS DE PERDÓN" AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,80 €)



04.11 ASTELEHENA

"CIEN AÑOS DE PERDÓN" AMURRIO ANTZOKIA 20:00eTan (3,60 €)

04.16 LARUNBATA

"PALMERAS EN LA NIEVE" LHUI 17:30ean ta 20:30ean (3 €)

04.17 IGANDEA

"HAPPY FEET" ALHONDEGIA 17:30ean (1 €)

etxaurre higiezin agentzia

ETXEA SALGAI OKONDON
Prezioa: 298.000 €
280 m², 3 solairu, 3 gela, 3 bainuge, sukaldia, egongela tximiniarekin, barbakoa, garajea, txokoa, terraza, 200 m²-ko lorategia, egoera bikaina.
Erref.: 167.702



PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 120.000 € (10.000 € BEHERATUTA!!!)
70 m², 3 gela, bainugela, sukaldia eraberritzeko, egongela balkoiarekin, igogailua proiektuan, kanpoaldera, negoziagarria.
Erref.: 167.699

PISUA SALGAI ARTZENIAGAN
Prezioa: 155.000 €
67 m², 3 gela, sukaldia eraberrituta balkoiarekin, egongela, bainugela, altzariz hornituta, negoziagarria.
Erref.: 167.701



PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 180.000 € (15.000 € BEHERATUTA!!)
64 m², 2 gela, 1 bainugela, sukaldia amerikana, egongela, trastelekua, garajea, igogailua, altzariz hornituta.
Erref.: 167.661

BASERRIA SALGAI LAUDION
Prezioa: kontsultatzeke
250 m², 4 gela, bainugela, sukaldia balkoiarekin, egongela balkoiarekin, garajea, 678 m²-ko lorategia.
Erref.: 167.652

www.etxaurre.com
946 72 85 50

_ezin galdu



NOLA BELZTU BEHAR ZURIA: AudiOholtzan programari esker Bide Ertzean eta Metrokoadroka taldeak emanaldia eskainiko dute: musika eta olerkia uztartuko dute, Joxan Artzeren poemekin. Audioko Lanbide Heziketan izango da, ostiral honetan 19:00etatik aurrera.



IN REAL TIME ETIOPIA: Elkartasun lasterketa aldi berean egingo dute apirilaren 17an Walmaran (Etiopia), Laudion, Hondarribian, Almussafes-en (Balentzia) eta Tres Cantos herrietan. Familientzako eta kirolarientzako ibilbideak egongo dira. Ekitaldia 10etan hasiko da.

ERREFUXIATUAK DIRELA DIOTE! BAI HORIXE!
FANATIKO ERLIJIOSO HADARIKATUAK! "BURKA"
JARTZERA BEHARTUKO GAITUZTE, ETA
ASTE SANTUA DEBEKATU! ETA HORI GUTXI!
BALITZ LANPOSTUAK ERE LAPURTUKO DIZKIGUTE!
GURUTZEAK "ON FIRE" JARTZEN ZAIZKI!!

JODER! ARGI ZEOK! ISLAMISTA ERRADIKAL HAU EK...
TA ENTZUN DUZU LAUDIOKO GAZTE DANBADA
DELAUO HORRENA? HORI BAI HERESIA!
XXI. MENDEKO "SODOMA ETA GOMORRA"
LIBERTINO NAZKANTEAK! ERRADIKALAK! "NONAHI!"
NUN HAIZ TORQUEMADA!

BAKARRIK GERATU GAITUK
GURUTZADA HONTAN MOTEL!



Aimar Gutierrez



Ainhoa
Comas
BERTSOLARIA

Leihotik

Asun risottoa

Aurreiritziak esku batean, beste esku(larru) arekin Toskanako eguzki izpiek azken aldiz laz-tanduko dituen asunak biltzen aurkitu dut nire burua, risottoa egiteko erabiltzeko asmoz eta ez-tarria gorrituko ez didaten itxaropenarekin. 7 pertsonentzako nahikoa da litro bat asun konprimitu. Hasteko, pare bat minutuz egosi eta zati txikitik zaitu behar dira, erasotzeko asmorik balute, seko uzteko. Tipula bat eta baratxuri buru bat oliotan belzten hasi orduko arroza bota behar da, eta azken hau gardentzean, ardo zuri edalontzi bat. Arrozak ardo edan orduko has gaitzke, gutxika, asunak egostean lortutako salda gutxika gehitzen, maitasunez arrozari ura xurgatzen laguntzen diogularik egurrezko koilaraz. Risottoak prest egoteko pare bat minutu behar dituela, asunak, gatza eta limoia gehitzea besterik ez da falta. Errezetaren gakoa, hala ere, ez da parmiggianoz eta lagunez laguntzea besterik, ohiko modura. Pentsatu nuen asun risottoa prestatzea bezalakoa izan beharko luketela gauza askok. Bidaiek, hezkuntzak, bizitzak behar-bada. (Des)ikastea. Zoritxarrez, ez dago kuzinatzerik eskularruak jantzita.

Pedro, Jose Ramon, Andres eta Adolfo "Sei laguneko koadrila goaz Rocioko Erromeriara, gu laurok eta bi mandoak"

Rocioko Erromeriara bidean daude Pedro Zallas (Burgos, 1954), Jose Ramon Larisgoitia (Arakaldo, 1948), Andres Garmilla (Leon, 1945) eta Adolfo Guerrero (Laudio, 1948). Bi mandok tiratutako gurdi baten gainean doaz.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Nola bururatu zitzaizuen bi mandok tiratutako gurdi baten gainean Rocioko Erromeriara joatea?

Larisgoitia: San Roke ermitan dago urte osoan, eta guk hortik ateratzea pentsatu genuen, eta Rocioraino eramatea. Pedoren ideia izan zen. Komentatu egin zigun eta txokoan afaltzen geundela ideia hori aurrera eramatea adostu genuen.

Mandoak bidaiarako heztea ez zen lan makala izango...

Larisgoitia: Guk eurak hezi ditugu, eta eurak gu. Lortu egin dugu azkenean. Sei laguneko koadrila gara orain, eurak eta gu laurok.

Bidai luzea duzue aurretik. Ekipamendu berezirik eramango duzue?

Guerrero: Gurdian hurrengo egunerako beharko duguna eramango dugu soilik, pisua ahalik eta gehien gutxitzearen. Joango garen leku guztietan daude behar ditugun gauzak erosteko salto-

kiak. Oinarrizko jakiak baino ez ditugu eramango: txorizo apur bat, hirugiharra... baina gainontzeko elikagai guztiak bidea egin ahala erosiko ditugu. Animaliek olo beltza jango dute, eta gurdian bi bidoi daramatzagu horrekin beterik.

Zer da bidaitik beldur gehien ematen dizuen?

Guerrero: Egun askoko aurrerapenarekin abiatu gara. Etapa txikiak egin nahi ditugu, eta horietako batzuk oinez egiteko asmoa daukagu, gurdiaren alboan. Denbora askorekin goaz, inolako estutasunik ez izateko. 30 kilometroko etapak izango dira gehienez, eta 5 egunean

behin egun osoko atsedena hartuko dugu.

45 eguneko bidaia izatea aurreikusit duzue. Zer egitea esperatu duzue?

Garmilla: Bideaz gozatzea da asmoa, hori izango da abentura. Jendea topatzea, toki bakoitzeko jaki tipikoa dastatzea, ohiturak ezagutzea... abentura eta kultura bidaia

bat izango da. Rociokoa azken zatia baino ez da izango.

BIDEOA: Lau laudiar, mandoekin Rocioko Erromeriara joateko prest



KOMUNIKAZIO AGENTZIA INTEGRALA

AHOLKULARITZA

PUBLIZITATEA

KOMUNIKAZIOA

BANAKETA

ITZULPENGINTZA